

## **DEIALDIA, EGOITZA SOZIALA ESTELLA-LIZARRAN DUTEN KIROL KLUB EZ-PROFESIONALEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO (2024-2025 DENBORALDIA)**

### **1.- Xedea.**

1.1. Deialdi honen xedea da kirol klub ez-profesionalentzako dirulaguntzak norgehiagoka araubidean ematea arautzea, oinarritzko kirola izan edo ez, 2024-2025 denboraldian (2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartean).

1.2. Dirulaguntza horien helburu nagusia da hirian kirola egitea sustatzea eta klubek parte hartzen duten lehiaketetan aktiboki parte har dezaten laguntzea, parte hartzeak dakartzan gastuen zati bat estaltzen lagunduz, hala nola izen-emateak, joan-etorriak edo kirol materiala, era honetan, klubei dakarkien zama ekonomikoa arinduz. Horrela, komunitatean kirol jarduera sustatu nahi da, kirolarien garapena eta herriko klubek indartzea bultzatuz.

### **2.- Aurrekontu-aplikazioa.**

2.1. Deialdi honen xederako 2025. urterako ezarritako dirulaguntza hirurogeita hamabost mila eurokoa (75.000 euro) da, eta 1 341004890000 "Dirulaguntzak. Kirol jarduerak", indarrean dagoen aurrekontutik ordainduko da.

2.2. Klub bakoitzari emandako zenbatekoak ezin izanen du inoiz diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

### **3.- Pertsona eta erakunde onuradunak. Betekizunak.**

3.1. Onuradun izan daitezke legez eraturako kirol klubak, baldin eta Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko Kirol Klubek Erregistro Ofizialean edo dagokion erakunde eskudunean izena emanda badaude eta deialdiaren baldintzak betetzen badituzte, betiere debeku kausetan sartuta ez badaude eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aipatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

3.2. Berariazko betekizunak:

- a) Sozietatearen helbidea Estella-Lizarrako udal mugapean izatea.
- b) Diruz lagundutako denboraldian defizita izatea.
- c) Kirolari federatuak izatea.
- d) Lizarrako herritarren aldeko kirol jarduerak egitea.
- e) Entrenatzaile eta koordinatzaile guztiek Sexu-delitugileen Erregistro Nagusiaren ziurtagiri negatiboa izatea..

f) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta emanda egotea Estella-Lizarrako Udalean.

g) Honako arau hauetan "oso larritzat" jotako arau-hausteengatik administrazio-bidean zehapen irmorik jaso ez izana: A) Kiroleko indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legea. B) Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea. C) Ikuskizun Publikoak eta Jolas Jarduerak arautzen dituen martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legea.

h) Klubaren jarduerak bat etorri behar du Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legean adierazitako printzipio eta lehentasunekin eta Estella-Lizarrako Udalaren kirol arloko aukera berdintasunerako politikaren helburuekin.

#### **4.- Aurkezteko epea eta lekua.**

4.1. Eskakerak aurkezteko epea iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hasiko da eta, oro har, 2025eko irailaren 30ean bukatuko da.

4.2. Eskakerak Estella-Lizarrako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez egingen dira, horretarako prestatutako tramitean, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean erregistro elektronikoari buruz jasotzen diren determinazioei jarraikiz.

4.3. Epea luzaezina izanen da eta epez kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

#### **5.- Eskakerak eta dokumentazioa.**

5.1. Eskabideekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira, 2024-2025 denboraldiari dagozkionak (2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra):

- Foru Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela frogatzen duen jatorrizko dokumentazioa edo kopia baimendua, eskaerak aurkezteko epearen amaiera-data erreferentziazat hartuta. Ofizios egiaztatuko da Udalarekin zerga betebeharrak ordainduta dauden, EJZn alta emanda egotea barne. Atal hau ezin izanen da zuzendu.
- Dirulaguntza ordaindu nahi den kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen banku-ziurtagiria, edo transferentzia bidez ordaintzeko agindua.
- Klubeko Idazkariak emandako eta Klubeko Presidenteak sinatutako ziurtagiria, puntu hauei buruzkoa:
  - Kirol lizentziak, Nafarroako Kirol Federazio bakoitzak emanak, eta Nafarroan ez badago, **I. ERANSKINAREN** arabera dagokiona. Gainera, emandako lizentziei dagokien federazioaren ziurtagiria erantsi behar da.

- Kirolarien ardura duten teknikari eta entrenatzaileen zerrenda, **II. ERANSKINAREN** arabera.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 75. artikulua arabera, justifikazio-kontu sinplifikatu bat aurkeztu beharko du, **III. ERANSKINAREN** arabera:
  - Diruz lagundu beharreko denboraldian zehar klubak egindako gastuen zerrenda sailkatua, honela banakatuta: zerga-oinarria, BEZ ez-kengarria, bi kopuruen batura eta BEZ kengarria.
  - Diruz lagundu nahi den denboraldian klubaren jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda sailkatua. Ogasunean sartutako zerga-oinarriaren eta BEZaren kontzeptuak banakatu, BEZ hori ez baita klubaren diru-sarreratzat hartzen.
  - Gastu eta diru-sarreraren laburpena.
  - Honekin batera doan gastu eta diru-sarreraren zerrenda oinarritzko kirolari buruzkoa da soilik, senior barne, eta beste kategoria batzuekin (profesionalak) edo beste jarduera batzuekin partekatzen den gastu/diru-sarrerarik baldin badago, gastuaren eta diru-sarreraren banaketa nola egingo den azaltzen duen orri bat erantsiko da.
  - Sarrerak, zozketak..., edo tiket bidezko salmentako bestelako sarreraren kasuan, klubeko idazkariaren ziurtagiri bat erantsiko da, salmenta kopurua eta banakako prezioa adieraziz.
  - PFEZren atxikipena duten gastuen kasuan, atxikipen horiek ogasunean sartu izanaren frogagiria aurkeztu beharko da. Bestela, gastua ez da kontuan hartuko justifikazioan.
- Egindako joan-etorrien deskribapena, 2024-2025 denboraldian, **IV. ERANSKINAREN** arabera.
- 2024-2025 denboraldian klubean egin diren jardueren memoria, **V. ERANSKINAREN** arabera.
- 2024-2025 denboraldian jokaturako jardunaldien deskribapena, **VI. ERANSKINAREN** arabera.

5.2. Eskabideak beharrezko baldintzak betetzen ez dituenean edo eskatzen diren agiri osagarriak falta direla ikusten denean, interesatuari eskatuko zaio, hamar eguneko gehienezko epean zuzendu dezala, ezarritako epea igaroz gero zuzendu gabe artxibatuko direla ohartaraziz.

## **6.- Dirulaguntzak emateko irizpideak eta balorazioa.**

6.1. Onartutako eskaera guztiei, diruz lagundutako denboraldian beren jarduerak defizitarekin aurkeztu badituzte, deialdi honetako **VII. ERANSKINEAN** jasotako puntuazio baremoa aplikatuko zaie.

6.2. Baldintzak betetzen dituzten eskabide guztiak puntuazio-baremoaren arabera baloratu ondoren, prozesuan parte hartzen duten klub guztiek lortutako puntu guztiak batuko dira. Kirol Klubentzako "laguntza ekonomiko" gisa izendatutako zenbateko osoa, onuradun diren Kirol Klub guztien artean lortutako puntuaren batuketaz zatituko da. Behin puntuaren balioa lortuta, kirol klub bakoitzak lortutako puntuak eta puntuaren balioa biderkatuko dira.

Prozedura honen bidez, klub bakoitzari dirulaguntza gisa egokituko zaion kopuru zehatza zehazten da, bere baremazioarekiko zuzenki proportzionala dena.

Puntuaren lehen banaketa egin ondoren, edozein arrazoi dela-eta dirulaguntzaren zenbateko osoa ematen ez bada, diru hori deialdi honetako bigarren banaketa egiteko erabiliko da. Ez dira ezarritako bi banaketak baino gehiago egingo.

## **7.- Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa.**

7.1. Emandako dirulaguntza ez da inola ere diruz lagundutako jardueraren kostu errealaren % 80 baino handiagoa izango, eta ez da inoiz diruz lagundutako denboraldiko ustiapen-kontuaren defizit justifikatua baino handiagoa izango, ez eta 59.999 euro baino handiagoa ere.

## **8.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

8.1. Diruz lagun daitezkeen gastuak izango dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta 2024/09/01etik 2025/08/31ra bitartean egiten direnak.

8.2. Epigrafe honetatik eta diruz lagundu daitezkeen beste edozein kontzeptutatik kanpo geratuko dira:

- Edozein motatako kirol eta administrazio zigorrak.
- Dohaintzak eta liberalitateak.
- Bazkari, afari, hamaiketako eta abarregatikoko gastuak.
- Banku-kontuen interes zordunak.
- Interesak, errekarquak eta zigor administratibo eta penalak
- Prozedura judizialen gastuak.

- Zeharkako zergak, berreskuratu edo konpentsatu badaitezke, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

### **9.- Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak.**

9.1. Laguntza ekonomikoaren onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

- Jarduerak egitea.
- Jarduera horiek egin direla egiaztatzea.
- Emandako dirulaguntzei dagokienez, egiaztapen eta kontrol finantzarioko jarduketak onartzea.
- Helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak jaso direla udalari jakinaraztea.
- Estella-Lizarrako Udaleko kirol arloak eskatzen dienean, ahal den neurrian, laguntza ematea beren kirol espezialitateari datzekion jardueretan, Udalak planifikatutako kirol jardueren funtzionamendu eta garapen egokian laguntzeko.
- Klubak parte hartzen duen jarduera batean gaizki erabiltzeagatik instalazioetan sortutako kalteak bere gain hartzea eta konpontzea.
- Prezio publikoa duten orduak ordaintzea, klubak eskatu eta erabili ez dituenak, betiere behar bezala justifikatutako arrazoiengatik ez bada.
- Sortzen den komunikazio guztia elebitan egitea, euskaraz eta gaztelaniaz, hizkuntza eta irudi inklusiboak, orekatuak eta ez-estereotipatuak erabiliz. Helburu horiek lortzeko, Estella-Lizarrako Udaleko zerbitzu guztien laguntza izanen du.

9.2. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetako edozein aldatzen bada, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da. Emandako daturen bat gezurrezkoa balitz, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko litzateke.

9.3. Jasotako kopuruak itzuli egin beharko ditu honako kasu hauetan:

1. Justifikatzeko betebeharra ez betetzea edo behar adina ez justifikatzea.
2. Dirulaguntza lortzea horretarako eskatutako baldintzak bete gabe.
3. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak eta oinarriak ez betetzea.

Eta, oro har, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako lege hori garatzeko Erregelamenduan ezarritako kasuetan.

9.4. Ikuskapen eta kontrol eginkizunak burutzean dirulaguntza behar ez bezala eskuratu, gozatu edo erabili izanaren zantzuak antzematen direnean, Udalak aipatu indizeak adierazten dituzten fakturak edo agiri baliokideak atxikitzea erabaki ahal izanen du.

9.5. Dirulaguntza eta laguntza publikoen arloko arau-haustekak eta zehapenak arautuko dira Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren bigarren xedapen iragankorraren 4. puntuan, lege horren IV. tituluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako lege hori garatzeko erregelamenduan ezarritakoaren arabera, bai eta Estella-Lizarrako Udalaren Aurrekontu Betearazlearen Oinarrietan xedatutakoaren arabera ere.

9.6. Deialdi honek ez ezik, honako hauek ere arautzen dituzte dirulaguntza horiek: Estella-Lizarrako Udalaren aurrekontua betearazteko oinarriek, dagokion ekitaldiko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, hura garatzen duen erregelamenduak eta horrekin bat heldu diren gainerako legeek.

### **10.- Dirulaguntzaren justifikazioa eta aurkeztu beharreko agiriak.**

10.1. Dirulaguntza justifikatzeko azken eguna 2025eko azaroaren 30a da. Egun horretan justifikatu ez diren dirulaguntzak galduko dira.

10.2. Fakturak 2024ko irailaren 1etik 2025eko abuztuaren 31ra bitartekoak izanen dira (epe hori bat dator denboraldiko memoriaren datekin).

10.3. Udalak fakturak eta ordainagiriak egiaztatuko ditu laginketa-tekniken bidez, dirulaguntza behar bezala erabili dela zentzuzko ebidentzia izateko; horretarako, onuradunari eskatu ahal izanen dio hautatutako gastuen frogagiriak bidaltzeko (eskatutako faktura eta ordainketaren frogagiria aurkeztuta egingen da justifikazioa). Hautatutako frogagiri horiek, guztira, diruz lagundutako zenbatekoa batu behar dute gutxienez. PFEZren atxikipena barne hartzen duten fakturretan, atxikipen horien Ogasunari egindako ordainketak erantsi beharko dira.

Kilometroen kasuan, gehienez ere 0,32 euro onartuko dira egindako km bakoitzeko.

Fakturarik lortzerik ez badago, dirua jaso duenaren oinarrizko datuak jasotzen dituzten data eta sinadura duten agiriak onartuko dira. (Izena, abizenak, NANA eta jasotako zenbatekoa).

### **11.- Kontzesioa eta ordaintzeko modua.**

11.1. Dirulaguntzak Estella-Lizarrako Udalaren Tokiko Gobernu Batzordearen ebazpenaren bidez emanen dira, Lizarrako Udaleko kirol koordinatzaileak txostena eman ondotik.

11.2. Honela ordainduko da:

- Organo eskudunak dirulaguntza eman eta hilabeteko epean, emandako dirulaguntzaren % 80 ordainduko da.

- Dirulaguntzaren gainerako % 20a, behin Udaleko arlo ekonomikoak laginketa egin ondoren, eta Klubak, gutxienez emandako dirulaguntzaren zenbatekoagatik, fakturak eta haien ordainketaren frogagiriak aurkeztu dituenean, laginketak hautatutakoen artean.

11.3. Aurreratutako zenbatekoak egindako gastua baino handiagoa izanez gero, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du kirol-klubak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. tituluan xedatutakoaren arabera.

11.4. Dirulaguntzaren xede diren jarduerak egitea eskabidera aurkezten den kirol klubaren ardura da bakar-bakarrik.

11.5. Estella-Lizarrako Udalak, egoki iruditzen zaizkion baliabideak erabiliz, dirulaguntzaren xede diren diru-kopuruen xedea edo inbertsioa deialdi honen lehen oinarrian ezarritakoa den begiratzen ahalko du.

## **12.- Ez-betetzea.**

12.1. Deialdi hau agiri honetan jasotako oinarrien arabera arautuko da, eta bertan aurreikusi ez den guztirako, ondorengo araudian ezarritakoaren arabera: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko Foru Legea, eta, osagarri gisa, Aurrekontuei buruzko Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko Estatuko Araudia.

## **VII. ERANSKINA: PUNTUAZIO-BAREMOA**

### **1. Bulegoak/egoitzak alokatzea ordaintzeagatik, nabeak alokatzeagatik materialerako, kirol-pistak alokatzeagatik eta mantentze-lanak egiteagatik.**

- Puntuazioak:
  - 500 eurora bitarte: puntu 1.
  - 501 eurotik 1.000 eurora bitarte: 3 puntu.
  - 1.001 eurotik 1.500 eurora bitarte: 6 puntu.
  - 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarte: 9 puntu.
  - 3.001 eurotik 4.500 eurora bitarte: 12 puntu.
  - 4.501 eurotik 8.000 eurora bitarte: 16 puntu.
  - 8.001 eurotik gora: 20 puntu.

### **2. Desplazamenduak**

Atal honetan Estella-Lizorra eta lehiaketak egiten diren herriak bereizten dituzten kilometroak baizik ez dira diruz lagunduko, joan-etorria autobusez edo autoz egiten den kontuan hartu gabe **bakarrik nazio mailan**.

Kategoria bakoitzeko km luzeena baloratuko da. (Kirol Jokoen joan-etorriak ez dira kontuan hartuko atal honetan, Nafarroako Kirolaren Institutuak diruz laguntzen baititu).

Puntuazioak:

- 0-100 km: puntu 1.
- 101-200 km: 2 puntu.
- 201-400 km: 4 puntu.
- 401-600 km: 8 puntu.
- 601 km-tik gora: 10 puntu.

### **3. Kirol federatuen fitxak edo lizentziak (federazioaren ziurtagiria).**

- Federazioko kirol lizentzia edo fitxengatik: 0,50 puntu x fitxa.
- Federatu gabeko kirol eskoletan izena emateagatik: 0,10 puntu x izena emandako bakoitzagatik.

### **4. Egutegi ofizialaren arabera, jokaturako jardunaldia.**

- Jokaturako jardunaldi kopuruagatik:
  - **Taldeko kirolak:** jokaturako jardunaldia 0.5 puntu. Jardunaldiak kategoria bakoitzeko taldeen arteko norgehiagokak izanen dira. (Kategoria bereko hiru taldek hiru jardunaldi izanen dituzte, bakarra izanez gero, jardunaldi bat).
  - **Banakako kirolak:** jokaturako jardunaldia 0.5 puntu. (kategoria) (adib. hasiberriak mailako 8 kirolarik ez dute 8 jardunaldi jokutzen, bi jardunaldi jokutzen dituzte):
    - 0-4 kirolari: jardunaldi 1
    - 5-10 kirolari: 2 jardunaldi.
    - 11-15 kirolari: 3 jardunaldi.
    - 16-20 kirolari: 4 jardunaldi.
    - 21-25 kirolari: 5 jardunaldi.

### **5. Federazioko gastuengatik: banakako probetarako izen-emateak, arbitrajeak, osasun azterketak eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, 6. puntuari ez dagozkionak.**

- Puntuazioak:
  - 1.000 eurora bitarte: puntu 1.

- 1.001 eurotik 3.000 eurora bitarte: 3 puntu.
- 3.001 eurotik 6.000 eurora bitarte: 6 puntu.
- 6.001 eurotik 12.000 eurora bitarte: 9 puntu.
- 12.001 eurotik 18.000 eurora bitarte: 12 puntu.
- 18.001 eurotik gora: 20 puntu.

## 6. Estella-Lizarran kirol probak antolatzea:

6.1 Estella-Lizarrako herritarrendako kirol probak antolatzeagatik, kasuan kasuko federazioak aurreikusi edo baimendutakoak:

- Esparrua:
  - Nazio mailan: 6 puntu.
  - Autonomia mailan: 8 puntu.
  - Toki mailan: 10 puntu.
- Parte-hartzaileak:
  - 50 parte-hartzaile arte: 2 puntu.
  - 51 eta 100 parte hartzaile artean: 4 puntu.
  - 101 parte-hartzailetik 150era: 6 puntu.
  - 150 parte-hartzaile baino gehiago: 8 puntu
- Proba bakoitzaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea (aldea):
  - 200 eurotik 1.000 eurora bitarte: 3 puntu.
  - 1.001 eurotik 3.000 eurora bitarte: 5 puntu.
  - 3.001 eurotik gora: 7 puntu.

	<b>DIRU-SARRERAK (oinarri ezargarrria)</b>	<b>GASTUAK (zerga-oinarria + BEZ ez-kengarria)</b>	<b>DIFERENTZIA</b>
<b>200€ - 1.000€</b>			
<b>1.001€ - 3.000€</b>			
<b>+3.001€</b>			
<b>Guztira</b>			

6.2 Kirol klubari dagozkion kirol probak antolatzeagatik, kasuan kasuko federazioak aurreikusi edo baimendutakoak:

- Proba bakoitzaren diru-sarreraren eta gastuen balantzea (aldea)::
  - 200 eurotik 1.000 eurora bitarte: 3 puntu.
  - 1.001 eurotik 3.000 eurora bitarte: 5 puntu.
  - 3.001 eurotik gora: 7 puntu.

	<b>DIRU-SARRERAK (oinarri ezargarria)</b>	<b>GASTUAK (zerga- oinarria + BEZ ez- kengarria)</b>	<b>DIFERENTZIA</b>
<b>200€ - 1.000€</b>			
<b>1.001€ - 3.000€</b>			
<b>+3.001€</b>			
<b>Guztira</b>			

## 7. Campusen antolaketa.

Kirol campus bat kirol jakin baten inguruko jarduera multzo bat da. Klubak berak antolatzen dituen prestakuntza jardunaldiak dira, jarduera jakin bat egiten duten haur eta gazteei zuzenduak.

Normalean, eskolako oporretan (aste santua, uda, Gabonetako oporrak, inauterietako oporrak) antolatzen dira, hiriko edo beste hiri batzuetako neska-mutilekin.

### Kirol campusak izateko baldintzak:

- Ostatua.
- Mantenua.

(Zehaztu proba bakoitzaren gastuak eta diru-sarrerak aparteko eranskin batean)

#### 7.1. Parte-hartzaile kopuruaren arabera:

- 30 parte-hartzaile arte: 2 puntu.
- 31tik 50 parte-hartzaile arte: 4 puntu.
- 51tik 80 parte-hartzaile arte: 8 puntu.
- 81 parte-hartzaitetik gora: 10 puntu.

#### 7.2. Iraupenaren egun kopuruaren arabera:

- 1 eta 3 egun artean: 1 puntu.
- 4 eta 7 egun artean: 3 puntu.
- 8 eta 11 egun bitartean: 5 puntu.
- 12 egunetik gora: 7 puntu.

#### 7.3. Campusak antolatzeko gastu garbiak.

- 200 eurotik 1.000 eurora: 3 puntu.
- 1.001 eurotik 3.000 eurora: 5 puntu.
- 3.001 euro baino gehiago: 7 puntu.

	<b>DIRU-SARRERAK</b> (oinarri ezargarria)	<b>GASTUAK</b> (zerga- oinarria + BEZ ez- kengarria)	<b>DIFERENTZIA</b>
<b>200€ - 1.000€</b>			
<b>1.001€ - 3.000€</b>			
<b>+3.001€</b>			
<b>Guztira</b>			